



BEATRIZ GALINDO DEIALDIA 2023 **INTERES ADIERAZPENAK AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK, UPV/EHUk PLAZAK ESKATZEARI BEGIRA**

Interes adierazpenek bete beharreko baldintzak:

Interes adierazpenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Hauek egin dezakete eskaria: UPV/EHUko ikertalde aitortuek (Eusko Jaurlaritzaren edo UPV/EHUko deialdietan halakotzat onartuek), unibertsitate institutuek edo nortasun juridikorik gabeko entitateek.
- Deialdi honetan UPV/EHUko ikertalde aitortu bakoitzak, unibertsitate institutu bakoitzak edo nortasun juridikorik gabeko entitate bakoitzak interes adierazpen bakarra aurkeztu ahal izango du. Interes adierazpen horretan 3 hautagai arte proposatu ahal izango dira.
- UPV/EHUko ikertalde aitortuek, unibertsitate institutuek edo nortasunik gabeko erakundeek ahalmen ekonomikoa izan beharko dute laguntzak iraungo duen lau urteetan zehar kontratuak kofinantzatzeko:
 - Senior modalitatea: Gutxienez 25.000 euro/urteko.
 - Junior modalitatea: Gutxienez 15.000 euro/urteko.
- Diru laguntza jasoz gero plaza atxikiko zaion sail edo institutuko arduradunaren onespena izan beharko du interes adierazpenak.

Plazen ezaugarriak

Bi modalitate daude deialdian:

- Senior modalitatea:** Hautagaiek egiaztatu beharko dute gutxienez zazpi urteko esperientzia izan dutela atzerrian, irakaskuntzan eta ikerketan, doktore titulua jaso zutenez geroztik.
- Junior modalitatea:** Hautagaiek egiaztatu beharko dute gehienez zazpi urteko esperientzia izan dutela atzerrian, irakaskuntzan eta ikerketan, doktore titulua jasotzeaz geroztik.

Interes adierazpenak hautatzeko irizpideak

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) hautagaien barne balorazioa egingo du, eta gehienez bost eskari hautatuko ditu, bere ustez laguntza eskuratzeko aukera gehien daukatenak. Irizpide hauek erabiliko ditu balorazioan:

IRAKASKUNTZA PROIEKTUA (gehienez 2,5 puntu)	
<i>Irakaskuntza programa</i>	puntu 1
<i>Irakaskuntza proiektuaren kalitatea</i>	puntu 1
<i>Irakasle edo ikertzailearen irakaskuntza programaren lotura Nazioarteko Bikaintasun Campusaren helburuekin.</i>	0,5 puntu



IKERKETARAKO ETA JAKINTZAREN TRANSFERENTZIARAKO PROIEKTUA (gehienez: 2,5 puntu)	
<i>Unibertsitateak planifikatutako ikerketa</i>	1,25 puntu
<i>Unibertsitateak planifikatutako jakintzaren transferentzia</i>	1,25 puntu

KONTRATUA AMAITU ONDORENGO INTEGRAZIOA (gehienez 2,5 puntu)	
<i>Prozesuaren kalitatea eta zehaztasuna</i>	1,25 puntu
<i>Prozesuaren plangintza</i>	1,25 puntu

UNIBERTSITATEAREN ZAKO EKARPENA (gehienez 2,5 puntu)	
<i>Ekarpen sozial eta ekonomikoa</i>	1,25 puntu
<i>Unibertsitatearen irakaskuntza eta ikerketa proiektuarentzako ekarpena</i>	1,25 puntu

Aurkeztu behar den dokumentazioa:

Interes adierazpenak aurkezteko erabili beharko da Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web orrian dagoen eredua (Worden eta PDFn), hautagaien CVA eguneratuarekin batera.

Esharia aurkezteko epea eta era:

Interes adierazpenak Ikerketaren arloko Errektoreordetzara bidali beharko dira (convocatorias.dgi@ehu.eus), mezuaren gaian "Beatriz Galindo deialdia» jarrita. Horretarako **epea 2024ko urtarrilaren 18an amaituko da 13:30etan.**

IGBBk ez du ebaluatuko goian esandako bidea ez den besteren bat erabiliz aurkeztutako edo data horren ostean jasotako interes adierazpenik.

IGBBren tramitazioa:

IGBBk interes adierazpenak behin hautatu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak posta elektronikoz jakinaraziko die haien proposatzaileei, eskari osoa lantzen has daitezen. Jakinarazpen hori 2024ko urtarrilaren 22etik 23 bitartean egingo da.

Ordutik aurrera, **hautatuak izan diren adierazpenen proposatzaileek 2024ko urtarrilaren 25ko 13:30ak arteko epea** izango dute eskari osoa convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidaltzeko.